



© S. Yaniz

**Inauteria**  
Europako Erregea II

**Carnaval**  
Rey de Europa II

erakusketa  
exposición **2012**

EMANKORTASUNARI LOTUTAKO NEGUKO MASKARADAK  
EUROPAKO INGURUNE ETNOGRAFIKOAN

LAS MASCARADAS INVERNALES DE FERTILIDAD EN EL  
CONTEXTO ETNOGRÁFICO EUROPEO

---

Urtarrilak 20 - Martxoak 4  
20 de Enero - 4 de Marzo

---

# El proyecto Carnival King of Europe proiektua

Carnival King of Europe proiektuak bere baitan hartzen du ikerketa etnografiko bat, web orri bat [www.carnivalkingofeurope.it](http://www.carnivalkingofeurope.it), DVD pelikula bat, eta erakusketa ibiltari bat, zeinak honako bide hau egingo duen: San Michele all'Adige (Italia), Bilbo, Ljubljana (Eslovenia), Sibiu (Transilvania-Errumania) eta Varsovia (Polonia).

Carnival King of Europe es un proyecto de investigación etnográfica, una página web [www.carnivalkingofeurope.it](http://www.carnivalkingofeurope.it), una película en DVD, una exposición itinerante que durante el 2012 se presentará en San Michele all'Adige (Italia), en Bilbao, en Liubiana (Eslovenia), en Sibiu (Transilvania-Rumania) y en Varsovia (Polonia).

Kotilun gorri, txanoa eta mozorroa  
Máscara de Kotilun gorri  
(Lapurdi / Labourd)



Carnival King of Europe - Inauteria, Europako erregea izeneko proiektua 2007. urtean hasi zen, San Michele all'Adige (Italia)

**Museo degli Usi e Costumi della Gente Trentinaren** ekimenez. Lehen aldian (2007-2009), Frantzia, Kroazia, Bulgaria eta Mazedoniako museo garrantzitsu batzuek bat egin zuten ekimenarekin; eta, horren ondotik (2010-2012), Eslovenia, Errumania, Polonia eta Euskal Herriko museoak batu dira. Gaur egun, honako hauek hartzen dute parte proiektuan: Bilboko **Euskal Museoa - Museo Vasco**, Ljubljana (Eslovenia) **Slovenski Etnografski Muzej**, Sibiu (Errumania) **Complexul Național Muzeal Astra**, Varsovia **Państwowe Muzeum Etnograficzne w Warszawie**, Zagreb (Kroazia) **Etnografski Muzej Zagreb**, Sofiako (Bulgaria) **Ethnographic Institute and Museum**, Bulgarian Academy of Sciences, Skopje (Mazedonia) **Nacionalna Ustanova Muzej na Makedonija** eta San Michele all'Adige (Italia) **Museo degli Usi e Costumi della Gente Trentina**, koordinatzaile gisa.



Deabruaren mozorroa  
Máscara de Diablo  
(Italia)

Al proyecto Carnival King of Europe - Carnaval Rey de Europa, iniciado en 2007 por iniciativa del Museo de los Usos y Costumbres de la Gente Trentina de San Michele all'Adige (Italia), se han adherido en una primera fase (2007-2009) significativos museos europeos de Francia, Croacia, Bulgaria y Macedonia a los que posteriormente se han sumado (2010-2012) museos de Eslovenia, Rumania, Polonia y Vasconia.

Actualmente participan en el proyecto el **Euskal Museoa - Museo Vasco** de Bilbao, el **Slovenski Etnografski Muzej** de Liubliana (Eslovenia), el **Complexul Național Muzeal Astra** de Sibiu (Rumania), el **Państwowe Muzeum Etnograficzne w Warszawie** de Varsovia, el **Etnografski Muzej, Zagreb** de Zagreb (Croacia), el **Ethnographic Institute and Museum, Bulgarian Academy of Sciences** de Sofia (Bulgaria) y el **Nacionalna Ustanova Muzej na Makedonija** de Skopje (Macedonia), además naturalmente, del Museo degli Usi e Costumi della Gente Trentina de San Michele all'Adige (Italia) que es coordinador.

Kukeri, Pernik  
(Bulgaria)



Txatal gizona  
El hombre retal  
(Eslovenia)



Rukabak  
(Croacia / Kroacia)



Djolomar (Agurea)  
Djolomar (El viejo)  
(Macedonia)



## Inauteria European

Inauteria European Europako inauteriaren sustraiak neguko herri-maskaraden espektro zabalean daude errotuta, negua baita errotuen urtaro nagusia, uda-garaia aurrez aurre jarrita, nekazaritzako lanetarako sasoa baita uda. Hala, bada, Domu Santu egunean hasi eta martxora arte, arbasoak behin edo hainbat aldiz itzultzen dira, bizidunei bisita egitera, eta emankortasuna eta oparotasuna agintzera, mozorroa jarrita duten herriko gazteen itxurapean. Hortaz, gaur egun ere, Europako alderdi askotako herri batzuetan -Balkanetatik Iberiaraino, Alpeetatik eta Hasburgotarren Europatik Britainiar uharteetara-, arrastoa jarraitu ahal diogu erritu zahar bati, nekazaritzako konjuru zaharretan sorburua duen errituari. **Carnival King of Europe** proiektua erritu zahar horren aztarnen bila abiatu da kontinenteko bazter guztietara, eta aztarnak erkatu ditu, haien artean dauden antzekotasunik nabarmenak jasotzeko eta guztiok batera dituzten izendatzaile komunak interpretatu ahal izateko.



Mozorroa Laufarjia  
Máscara Laufarjia  
(Eslovenia)

## El Carnaval en Europa

El carnaval europeo hunde sus raíces en el amplio espectro de las mascaradas populares de invierno, la estación de los ritos por excelencia, y claramente contrapuesta al verano que es la estación de los trabajos agrícolas. De este modo, desde Todos los Santos hasta marzo, en una única ocasión o en varias, los antepasados regresan a visitar a los vivos y a prometerles fertilidad y abundancia disfrazados de jóvenes lugareños enmascarados. De este modo y aún hoy, en algunos pueblos de gran parte de Europa desde los Balcanes a Iberia, desde los Alpes y la Europa de los Habsburgo hasta las Islas Británicas, puede seguirse el rastro de un antiguo rito que se inspira en antiguos sortilegios agrícolas. **Carnival King of Europe** se propone redescubrir los vestigios de este antiguo ritual por todos los rincones del continente y confrontarlos con el fin de dejar constancia de las semejanzas más evidentes y poder interpretar los denominadores comunes a todos ellos.



"Ciapelón"  
(Italia)

Atsoa  
La Vieja  
(Rumania)



## Maskaradaren aldia

Maskaradaren aldiaren hasieran, deabruzko pertsonaia izugarri batzuk sartzen dira, larruz, joarez eta txilinez estalita. Antzinako izu-egoera bateko amesgaizto errepikatua irudikatzen dute. Horren ondotik, mitikoagoak diren pertsonaia agertzen dira, dantzariak edo janzilariak, zuriz jantzita, eta, sarritan, xingolez apaindutako txano garai puntazorrotz batez hornituta: pertsonaia hieratikoa dira horiek, apaiz-itxurakoak, eta zeremonia zehatz batean hartzen dute parte. Leku gehienetan, fartsa honetan datza: ezkontza baten ospakizunak antzetzten dira, eta, horren ondoren, normalean, golde bat eramaten da arrastaka herriko plazatik. Zeremonia bukatu ondoren, arauak hausten dituen maskaradako zatia irakurtzen da, inauteri-talde satiriko, nazkagarri eta lizunen laguntzaz. Amaieran, jendaurreko epaketan, heriotzazigorra emango diote inauteriari, edo bera irudikatzen duen lastozko pertsonaiari. Hala, pertsonaia hori zatikatu, lurperatu edo sutara bidaliko dute, eta igaro berria den maskaradaren kaleidoskopio handia berehala desagertuko da, sute garbitzaile handiko ke laino artean. Gidoi zehatz hori errepikatzen da betitik Europa osoan, aldaera txiki batzuekin. Azken batean, oraindik konpondu gabe dagoen benetako misterioa da etnologo eta historialarientzat.



## El ciclo de la Mascarada

El ciclo de la mascarada se inicia con la entrada estrepitosa de pavorosas y diabólicas figuras que, cubiertas de pieles, cencerros y campanillas, representan la pesadilla recurrente de un estado



Zamalzain  
Zaldiko  
(Zuberua)

de pánico ancestral. Siguen figuras más míticas, bailarines o brincadores, vestidos de blanco, a menudo caracterizados con un puntiagudo gorro alto decorado con cintas: son figuras hieráticas, sacerdotales, que intervienen en una ceremonia específica. Casi universalmente, la farsa consiste en la representación de la celebración de un matrimonio, seguida habitualmente del arrastre de un arado por la plaza del pueblo. Terminada la ceremonia, se da lectura a la parte transgresora de la mascarada, con sus comparsas satíricas, repelentes y obscenas. Al finalizar, un juicio público condenará a muerte al Carnaval o a una figura de paja que lo representa e inmediatamente, el gran caleidoscopio de la mascarada desaparecerá entre la humareda de un gran fuego purificador. Un guión preciso que se repite desde siempre en toda Europa con pequeñas variantes: en suma un auténtico misterio, aún sin resolver, para etnólogos e historiadores.

(Polonia)

## **EUSKAL MUSEOA - BILBAO - MUSEO VASCO**

**Asteartetik Larunbatetara 11:00 - 17:00 Martes a Sábados**

**Igandea 11:00 - 14:00 Domingo**

Miguel de Unamuno Plaza, 4 - 48006 - BILBAO

Telf. +34 94 415 54 23 - Fax +34 94 479 06 08

**<http://euskal-museoa.org>**

**[museoa@euskal-museoa.org](mailto:museoa@euskal-museoa.org)**



Culture Programme



Education and Culture DG



[www.carnivalkingofeurope.it](http://www.carnivalkingofeurope.it)